

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jean Arhex Arotxa

*Liginaga-Astüe,
Züberoa (1932)*

Aurkibidea



Biografia



Liginaga herrikoa. Gurasoak bertakoak zituen: aita, Juhane Arhex eta ama Gaxusa Irigaray. Aita Arotxa etxean ezkondu zen; baserri ttipi bat zuten. Aita osagarri ttipikoa zen, eta gazterik zendu zen. Ama bost seme-alabarekin geratu zen: Jean zaharrena eta lau alaba. Bat lau urterekin zendu zen, eta besteak Marseilla hirira neskato joan ziren. Jean 14 urte arte ibili zen eskolan, eta gero amak Mauleko Champo eskola teknikora igorri zuen, 17 urtera arte. Ondotik Mitikileko arroztegian (Garaitegia izenekoa) egon zen lanean, hiru urtez. Ondotik etxean jarri zuen aroztegia. Zerbitzu militarra ere egin behar izan zuen: parachutistekin lehenengo, eta gero Marokon eta Algerian (gerla zen orduan). Inseminadore artifiziale izateko formatu zen, Billères eta Rambouillet hirietan. Bi lanbide zituen, beraz: arrotza eta inseminadorea; urtean 600 bat etxetara joaten zen, inseminatzera, eta aroztegi langile bat hartu zuen. Jendeak etxearen izenetik deitzen du Jean: Arotxa. Familian, berriz, Juhane bezala da ezaguna.

Zintak

LIG-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Camus Etchecopar, Argitxu
- **Data:** 2014-07-12
- **Iraupena:** 72 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com